

M<sup>a</sup> VICTORIA JOARISTI OLARIAGA ANDREA,  
OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 9an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu duela:

**“2021EAN HERRIKO ERAGILEEK, KIROL EKINTZAK EDO JARDUERA BEREZIAK ANTOLA DITZATEN DIRULAGUNTZAK BANATZEKO OINARRIAK.**

2021an herriko eragileek Oiartzungo Udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten dirulaguntzak banatzeko oinarriak ezartzeko beharra dela eta, Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautua Batzordeak honako diktamena egin du:

“2018ko irailaren 26an Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza”ri haserako onespena eman zion.

Espedientea jendaurrean jarri zen urriaren 11tik aurrera 30 eguneko epeaz eta inolako erreklamaziorik ez zenez jaso, behin betiko bihurtu zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaroak 30ean argitaratu zen.

Gazteria eta Kirol Batzordeak onarpenerako proposatzen dituen “2021ean herriko eragileak Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak eta jarduera bereziak antola ditzaten dirulaguntzak banatzeko oinarri” hauen xedea, hauxe da: 2021. urtean, Oiartzungo eragileek Oiartzungo Udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antolatzeke, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiartzungo udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2021 urteko aurrekontuko 1.1102.481.341.00.03.2021 (A/227-2021) zenbakidun partidaren kontura.”

Beraz, gaia aztertutik, aho batez, “2021an herriko eragileak Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartzea erabaki da.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberak.

Oiartzunen, sinaduraren egunean,